

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2014ko martxoaren 24an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

16.- Bermeoko Udaleko osasun zaintza eta higiene industrialeko espezialidadeak eskaintzeko zerbitzu kontratua esleitzea.

Planteatutako gaia

Bermeoko Udaleko osasun zaintza eta higiene industrialeko espezialidadeak eskaintzeko zerbitzu kontratua prozedura negoziaduaren bidez esleitzea.

Aurrekariak

Bakarra: 2014ko otsailaren 24an Tokiko Gobernu Batzarrak erabagi eban osasun zaintza eta higiene industrialeko espezialidadeak kontratatzeko baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea prozedura negoziadu bidez.

Argudioak

Lehenengoa: Prozedura negoziadu honetan parte hartzeko 5 enpresari zabaldu jake gonbitea eta epea amaitu eta dokumentazioa aztertu ondoren, esan behar da, prozedura negoziadu honetan enpresa bik aurkeztutako proposamenak baloratu dirala.

Bigarrena: Administrazio-baldintzetan agertzen diran esleipen erispideak eta esleipena egiteko bidea eta modua kontuan hartuz, honako honeek izan dira enpresek lortutako puntuaketak

ESLEIPEN ERISPIDEAK										
KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZUA										
A) PREZIOA: 60 PUNTU			B) HOBEKUNTZAK: 40 PUNTU							
A) PREZIOA: (Ob/OI) x 60			H1	H2	H3	H4	H5	H6	H7	
			10 puntu	5 puntu	5puntu	2 puntu	5 puntu	6 puntu	7 puntu	
PREVENOR	12000 €		PREVENOR	0	5	5	0	5	0	7
TECESLA	13914,85 €		TECESLA	10	5	0	2	5	6	0
TECESLA	51,74 PUNTU		TECESLA	28 PUNTU						
PREVENOR	60 PUNTU		PREVENOR	22 PUNTU						
GUZTIRA:			TECESLA	79,74 PUNTU						

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: PREVENOR, SL enpreseari esleitzea Bermeoko Udaleko osasun zaintza eta higiene industrialeko espezialidadeak eskaintzeko zerbitzu kontratua.

BIGARRENA: PREVENOR, SL enpreseagaz jagokon kontratua sinatzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2014ko martxoaren 26an.

ONETSIA
ALKATEA